

Martxoaren Zortzia beharrezkoa da oraindik

Sentsazioa gazi-gozoa da; gure aldetik, balorazio guztiz negatiboetatik ihes egin nahi dugu, eta emakumearen sustapenean aurrerapen ukaezinak eragin dituzten alderdiei ere erreparatu, zalantzarik gabe, sakontzen jarraitu beharko ditugun arren, pertsona guztien arteko berdintasuna lortzen aurrera egiteko.

Gaur egun emakumeak gizartean duen posizioaren ezaugarria da menpekotasun egoeran dagoela, genero rolen banaketa historikoaren arabera. Ez dago gaizki esatea emakumeak bigarren maila sozialeko postua arrastatzen duela gizarte primitibotik, izan ere, espeziearen biziraupenerako egiten zuen ekarpena aitortzen bazitzaion ere, gizonak bermatzen zituen mantendu ahal izateko baliabideak, eta gizonak alderdi hori jarri zuen garrantzi sozialaren lehen postuan.

Botereak beste adierazpide batzuk hartu dituenean, gizonaren hasierako nagusitasun posizionamendua arlo maskulinoan finkatu da.

XX. mendean gertatu dira lehen mugimendu sufragistak, antolatuak edo antolatu gabeak, emakumearentzako beste posizio sozial bat erreibindikatzuz:

- 1920ko abuztuaren 18an onartu zen Estatu batuetan konstituzioaren 19. zuzenketa.
- 1928an, Britainiar Parlamentuak berdintasun politikoa aitortu zien emakumeei eta gizonei.
- 1931n, Espainiak emakumeak bozkatzeko eskubidea duela aitortu zuen.
- Suitzak 1971n.
- 1980ko hamarkadan, mundu osoko emakumeek zuten bozkatzeko eskubidea aitortuta, herrialde musulman batzuek izan ezik.

Perspektiba historiko labur horrek aukera ematen digu baieztatzeko berdintasunaren aldeko mugimendu feminista oraindik berria dela. Halaber, aukera ematen du baieztatzeko mendebaldeko herrialdeetan, gu ere hor gaude, egindako bidea esanguratsua dela, nahiz eta joera ez den beti positiboa.

Gure ingurunean, emakumeek berdintasunez lortzen dute ezagutza; lanerako adinean dauden emakumeek enplegua lortzen dute; eskatu egiten dituzte eta errespetatu; baina hori guztia, modu irregular eta inkontsekuentean, emakumeak erabakiak hartzen dituzten botere kargu eta postuetan duen presentzia oraindik ere testimoniala baita.

Emakumeak gizartean historikoki izan duen menpekotasun egoerak bere horretan jarraitzen du, ez dator bat daukan gaitasunarekin.

- *Prestatuta dago, lan egiten du, baina gizonek baino soldata txikiagoak jasotzen ditu.*
- *Laneko tratamenduan diskriminatu egiten da amatasunagatik.*
- *Profil femeninoko lan jarduerak bigarren mailakotzat jotzen dira, ez dute gizonaren presentzia nagusitzen den horiek duten errekonozimendu berdina.*
- *Lan ordaindua eta etxeko lanen %70 egitea bateratzen du, baita etxera egiten duen ekarpen ekonomikoa bikotekidearena baino handiagoa bada ere.*
- *Gainera, munduan, hiru emakumetik batek bizitzan zehar probabilitatea dauka kolpatua izateko, harreman sexualak izatera behartua izateko edo bestelako tratatu txarren bat jasateko. Nazioarteko datuak diren arren, eta testuinguru eta kultur diferentziak onartuta, emakumea bikotekidearen biktima bihurtzearen lakra munduko gizarte gehienetan errepikatzen da; baita estatu espainolean eta EAEn ere.*

Gure gizartean, gaur egun, emakumea harro da emakume izateagatik, eta hori urrats garrantzitsutzat jo daiteke berdintasunaren alde aurre egiteko. Gure alabei begien bistakoa iruditzen bazaie ere, gure amen belaunaldia oraindik ez zegoen harro. Tira, gizarteak aurrera egingo du, baina oraindik asko dago egiteko.

Beharrezkoa da alderdi desberdinetan aktiboki lan egitea, gizonen eta emakumeen berdintasunaren bidean aurrera egiteko:

- *Emakumeei lagunduz parte hartze sozialean aurrera egiten*
- *Diskriminazio egoerak salatuz*
- *Diskriminazio positiboko baliabideak eta bitartekoak erabakiz*

Hori guztia, gizarte osoaren lankidetzarekin, gizon zentzudun, zuhur eta solidarioen lankidetzarekin, zorionez, horrelakorik bada eta, eta gehienak dira gainera.

Itziar Usabiaga